# Xedapen Orokorrak

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

**3518**

EBAZPENA, 2010eko maiatzaren 15ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena. Honen bidez agindua ematen da Irakaskuntza Ikastegietako Kalitate Batzordearen esparru araudia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.

AURREKARIAK

Irakaskuntza Ikastegietako Kalitate Batzordearen Esparru Araudi honen helburua, hain zuzen, UPV/EHUko irakaskuntza-ikastegi bakoitzak bere Kalitate Batzordearen funtzionamendurako berariazko Araudia osatzea da.

Beraz, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan bateratzeko prozesuarekin lotutako hainbat programatan aurreikusitakoa betetzen du. Zehazki, araudi honek gradu berrien ikasketa-planen aurreikuspenei begira jarduten du. Aurreikuspen horien arabera, irakaskuntza-ikastegiek Kalitatearen Barne-bermerako Sistema (KBBS) bat eduki beharko dute. Era berean, AUDIT programak (tituluen kalitatea bermatzeko programa) dio KBBS bat duten Ikastegiek praktikan jarri behar dutela diseinua, Ikastegiko Kalitate Batzordeak aipatutako sistema horren funtzionamenduari egindako ebaluazioaren bitartez. Bestalde, UPV/EHUko irakasleen Irakaskuntza Ebaluatzeko Programak, Docentiaz-ek (2009ko abenduaren 22ko UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutakoa), Ikastegietako Kalitate Batzordeen garapenari buruzko araudia aurreikusi du, berau praktikan jarri ahal izateko.

Gobernu Kontseiluak 2004ko uztailaren 22an egindako bileran, Estatutuak garatzeko prozedura ezarri zuen, eta 2010eko apirilaren 29an, organo berak, EHUko Irakaskuntza Ikastegietako Kalitate Batzordearen Esparru Araudi onartu zuen, eranskinean jasotakoa.

Azkenik, UPV/EHUko Estatutuetako 258.1.d) atalak dio, idazkari nagusiak bermatu behar duela UPV/EHUko erabakiak argitaratzea; eta, bestalde, otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemaren buruzkoak, dio erabakiak oso-osorik argitaratu behar direla Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

# Disposiciones Generales

**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO**

**3518**

RESOLUCIÓN de 15 de mayo de 2010, de la Secretaria General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Reglamento Marco de la Comisión de Calidad de los Centros Docentes de la UPV/EHU.

ANTECEDENTES

El Reglamento Marco de la Comisión de Calidad de los Centros Docentes tiene la finalidad de establecer las directrices que permitirán a cada Centro docente de la UPV/EHU la elaboración de su propio Reglamento de funcionamiento de la Comisión de Calidad.

Da cumplimiento a lo previsto en varios programas relacionados con el proceso de convergencia en el Espacio Europeo de Educación Superior. En particular, esta normativa atiende a las previsiones de los planes de estudio de los nuevos grados, los cuales establecen expresamente que los Centros docentes se dotarán de un Sistema de Garantía Interna de Calidad (SGIC). A su vez, el programa AUDIT requiere que los Centros dotados de un SGIC pongan en práctica su diseño a través de la evaluación del funcionamiento de dicho sistema por la Comisión de Calidad del Centro. Por otra parte, el Programa de Evaluación de la Actividad Docente del profesorado de la UPV/EHU, Docentiaz, aprobado por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU de 22 de diciembre de 2009, prevé también para su puesta en práctica la existencia de una normativa de desarrollo de las Comisiones de Calidad de los Centros.

Seguido el procedimiento de desarrollo estatutario que el Consejo de Gobierno estableció en su sesión de 22 de julio de 2004, con fecha 29 de abril de 2010 ese mismo órgano aprobó el texto del Reglamento marco de la Comisión de Calidad de los Centros Docentes en los términos recogidos en el anexo.

A su vez, el artículo 258.1 de los Estatutos de la UPV/EHU en su apartado d), encomienda al Secretario General garantizar la publicidad de todos los acuerdos de la UPV/EHU, que según se establece en la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, se materializará mediante su íntegra publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Horregatik guztiagatik,

EBATZI DUT:

***Lehenengoa***.– Agindua ematea UPV/EHUko Irakaskuntza Ikastegietako Kalitate Batzordearen Esparru Araudi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko, eranskinean ageri den moduan.

***Bigarrena***.– Ebazpen hau behin betikoa da, eta haren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, eta hilabeteko epea dago horretarako, ebazpen hau eman duen organo berberaren aurrean. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegien aurrean, bi hilabeteko epean.

Leioa, 2010eko maiatzaren 15a.

Idazkari nagusia,
EVA FERREIRA GARCÍA.

ERANSKINA

Irakaskuntza Ikastegietako Kalitate Batzordearen Esparru Araudia

ATARIKOA

Honako Esparru Araudi honen helburua, hain zuzen, UPV/EHUko irakaskuntza-ikastegi bakoitzak bere Kalitate Batzordearen funtzionamendurako berariazko Araudia osatzea da.

Beraz, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan bateratzeko prozesuarekin lotutako hainbat programatan aurreikusitakoa betetzen du. Zehazki, araudi honek gradu berrien ikasketa-planen aurreikuspenei begira jarduten du. Aurreikuspen horien arabera, irakaskuntza-ikastegiek Kalitatearen Barne-bermerako Sistema (KBBS) bat eduki beharko dute. Era berean, AUDIT programak (tituluen kalitatea bermatzeko programa) dio KBBS bat duten Ikastegiek praktikan jarri behar dutela diseinua, Ikastegiko Kalitate Batzordeak aipatutako sistema horren funtzionamenduari egindako ebaluazioaren bitartez. Bestalde, UPV/EHUko irakasleen Irakaskuntza Ebaluatzeko Programak, Docentiaz-ek (2009ko abenduaren 22ko UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutakoa), Ikastegietako Kalitate Batzordeen garapenari buruzko araudia aurreikusi du, berau praktikan jarri ahal izateko.

Ikastegiko Kalitate Batzordea, hain zuzen, Ikastegiko Batzarrak izendatutako batzordea da, eta Zuzendaritza Taldearekin batera, KBBSren plangintza eta jarraipena egiteko zereginetan parte hartzen du. Gainera, kalitate-sistema horren politikaren, helburuen, planen, programen, erantzukizunen eta lorpenen

Por todo ello,

RESUELVO:

***Primero***.– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Reglamento marco de la Comisión de Calidad de los Centros Docentes de la UPV/EHU, según lo dispuesto en el anexo.

***Segundo***.– Esta Resolución por ser definitiva, pone fin a la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición, en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que la dictó o recurso contencioso-administrativo ante los Tribunales de lo Contencioso de Bilbao en el plazo de dos meses.

Leioa, a 15 de mayo de 2010.

La Secretaria General,
EVA FERREIRA GARCÍA.

ANEXO

Reglamento Marco de la Comisión de Calidad de los Centros Docentes

PREÁMBULO

El presente Reglamento Marco tiene la finalidad de establecer las directrices que permitirán a cada Centro docente de la UPV/EHU la elaboración de su propio Reglamento de funcionamiento de la Comisión de Calidad.

Da cumplimiento a lo previsto en varios programas relacionados con el proceso de convergencia en el Espacio Europeo de Educación Superior. En particular, esta normativa atiende a las previsiones de los planes de estudio de los nuevos grados, los cuales establecen expresamente que los Centros docentes se dotarán de un Sistema de Garantía Interna de Calidad (SGIC). A su vez, el programa AUDIT requiere que los Centros dotados de un SGIC pongan en práctica su diseño a través de la evaluación del funcionamiento de dicho sistema por la Comisión de Calidad del Centro. Por otra parte, el Programa de Evaluación de la Actividad Docente del profesorado de la UPV/EHU, Docentiaz, aprobado por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU de 22 de diciembre de 2009, prevé también para su puesta en práctica la existencia de una normativa de desarrollo de las Comisiones de Calidad de los Centros.

La Comisión de Calidad del Centro es una comisión nombrada por la Junta del Centro que participa junto al Equipo de dirección o equipo decanal en las tareas de planificación y seguimiento del SGIC, actuando además como uno de los vehículos de comunicación interna de la política, objetivos, planes,

barne-komunikaziorako bide moduan jarduten du. Ikastegiko Kalitate Batzordea, bestalde, Ikastegiko zuzendaritza-taldeari eta Ikastegiko Batzarrari laguntza eta aholkularitza eskainiko dien organoa izango da, titulu guztien curriculum-garapenaren plangintza eta jarraipena egin ahal izateko. Horretarako, gaitasunetan oinarritutako irakaskuntza-ikaskuntza ereduari erreparatuko dio; bertan, hainbat metodologia aktiboren bitartez eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren laguntzarekin, autogidatutako irakaskuntza (bakarkakoa zein taldekakoa) eta etengabeko ebaluazioa sustatuko dira, irakaskuntza eleaniztunaren testuinguruan. Era berean, Ikastegiko Kalitate Batzordea arduratuko da txostenak bidaltzeaz, gerora irakasle guztiak ebaluatu ahal izateko.

Ikastegiko Batzarra UPV/EHUko Ikastegietako ordezkaritzarako eta gobernu arrunterako kide anitzeko organoa denez, bera arduratuko da Ikastegiko kalitate-politika eta -helburuak onartzeaz eta Kalitate Batzordearen eraketa, osaera eta funtzioak onartzeaz.

Era berean, Ikastegiko Batzarra arduratuko da hainbat titulutan hobekuntza-ekintzak onartzeaz, Graduko Tituluen Kalitatea Bermatzeko Sistemaren esparruan; besteak beste, Kalitate Batzordeak aurkeztutako ebaluazio-sistemari buruzko txostenak aintzat hartuta.

Honako Araudi honek, beraz, Ikastegietako Kalitate Batzordeen Araudiek jaso behar dituzten gutxieneko gidalerroen multzoa biltzen du. Horrenbestez, funtzioak, osaera eta funtzionamendua arautzen ditu. Honako Esparru Araudi hau egitean, kontuan hartu dira era honetako ekimena abian jarrita duten Ikastegiek jarraitutako gidalerroak.

***1. artikulua.***– Esparru Araudiaren helburua.

1.– Honako Esparru Araudi honen helburua, hain zuzen, Ikastegiko Kalitatearen Barne-bermerako Sistemaz (KBBS) arduratuko den organoaren egitura, osaera eta funtzioak ezartzea da.

2.– Aipatutako organo horri Ikastegiko Kalitate Batzordea izena jarriko zaio.

3.– Honako Esparru Araudi honek, beraz, irakaskuntza-ikastegi bakoitzak bere Kalitate Batzordearen funtzionamendurako berariazko Araudia osatzeko derrigorrean bete beharko dituen gidalerroak ezartzen ditu.

***2. artikulua.***– Araubide juridikoa.

1.– Ikastegiko Kalitate Batzordea berariazko Araudiaren araberakoa (honako gidalerro hauek aintzat hartuta Ikastegiko Batzarrak eratutakoa), honako Esparru Araudi honen araberakoa (beste hartan aurreikusi gabekoetan gutxieneko izaera izango duena) eta aplikatzeko moduko gainerako araudien araberakoa izango da.

programas, responsabilidades y logros de este sistema de calidad. La Comisión de Calidad del Centro será, además, el órgano que apoye y asesore al equipo directivo del Centro y a la Junta de Centro en la planificación y seguimiento del desarrollo curricular de los títulos, en base al modelo de enseñanza-aprendizaje basado en competencias, en el que a través de metodologías activas y con el apoyo de las tecnologías de la información y comunicación, se fomente el aprendizaje autodirigido (individual y grupal) y la evaluación continua, en un contexto de enseñanza plurilingüe. Así mismo, la Comisión de Calidad del Centro se ocupará de emitir los informes para la posterior evaluación del profesorado.

En la Junta de Centro, en tanto que órgano colegiado representativo y de gobierno ordinario de los Centros de la UPV/EHU, recae la responsabilidad de aprobar la política y objetivos de calidad del Centro, así como la de aprobar la constitución, composición y funciones de la Comisión de Calidad.

Así mismo, la Junta de Centro es responsable de la aprobación de acciones de mejora en las diferentes titulaciones, en el marco del Sistema de Garantía de la Calidad de los Títulos de Grado, en base, entre otros, a los informes de evaluación del sistema presentados por la Comisión de Calidad.

El presente Reglamento recoge, en consecuencia, el conjunto de directrices que, con carácter de mínimos, han de contemplar los Reglamentos de las Comisiones de Calidad de los respectivos Centros. Se establece sus funciones, composición y funcionamiento. En la elaboración de este Reglamento marco se han tenido en cuenta las pautas seguidas por aquellos Centros que ya han puesto en marcha experiencias de este tipo.

***Artículo 1.***– Objeto del Reglamento Marco.

1.– El objeto del presente Reglamento es establecer la estructura, composición y funciones del órgano responsable del Sistema de Garantía Interna de Calidad (SGIC) del Centro.

2.– Dicho órgano se denominará Comisión de Calidad del Centro.

3.– El presente Reglamento Marco establece las directrices de obligado cumplimiento en cuyo desarrollo cada Centro docente elaborará su propio Reglamento de funcionamiento de la Comisión de Calidad.

***Artículo 2.***– Régimen jurídico.

1.– La Comisión de Calidad del Centro se regirá por su propio Reglamento –elaborado por la Junta de Centro a partir de las presentes directrices–, por este Reglamento Marco, que en todo lo no previsto por aquél tendrá carácter de mínimo, y por la demás normativa que le sea de aplicación.

2.– Ikastegiko Kalitate Batzordearen Araudia behin betiko onartzea Gobernu Kontseiluari dagokio, Ikastegiko Batzarrak halaxe eskatuta, eta dagokion legezkotasun-txostena aurkeztu ondoren. Idazkaritza Nagusiak (eskuordetuta) onartuko ditu Araudiak. Onartzeko, alabaina, Araudiek aldeko txosten guztiak izan beharko dituzte eta Gobernu Kontseiluko kide bakar batek ere edo Ikastegiko Batzarreko kideen % 15ek ez dute espresuki eskatu beharko txostenak Gobernu Kontseilura eramatea. Onartuz gero, Gobernu Kontseiluari jakinarazi beharko zaio.

***3. artikulua.***– Funtzioak.

1.– Kalitate Batzordeak, beraz, Ikastegiko Batzarrak Araudian Batzordeari esleitutako funtzioak izango ditu. Kasu guztietan, honako hauek bete beharko ditu:

a) Kalitatearen Barne-bermerako Sistema (KBBS) diseinatzen, ezartzen eta martxan jartzen jardungo du; halaber, sistema horren jarraipena egingo du.

b) Prozesuei jarraipena egingo die, horiekin lotura duten adierazleen bitartez.

c) Batzordeak egindako proposamenak Ikastegiko Zuzendaritza Taldera eramango ditu.

d) Ikastegiak urte bakoitzerako dituen helburuak jaso, eta hala badagokio, helburu horiek azaltzeko modua koordinatuko du; era berean, helburuak gauzatzen ote diren jarraipena egingo du.

e) Gogobetetzeari buruzko galdetegien emaitzak jaso, eta emaitza horietatik eratorritako hobekuntza-proposamenetarako irizpideak proposatu beharko ditu.

f) KBBS aztertu eta gainbegiratuta, Urteko Txostena osatuko du; era berean, tituluan ezarritako helburuak erdiesteko beharrezkoak diren hobekuntza-ekintzak proposatu beharko ditu.

g) Tituluaren egiaztagiria eskuratzeko eta aldian-aldian berritzeko zereginean lagunduko du.

h) Ikastegiaren kalitate-politika eta -helburuak jakinarazteko bidea izango da; hala, horiek betetzen direla bermatuko du eta unibertsitate-komunitatean hedatzeaz arduratuko da.

i) Tituluaren curriculum-garapenaren plangintza eta hedapena egiteko zereginean lagunduko du.

j) Ikastegiko irakasleen trebakuntza sustatuko du, gradu berrietako curriculum-garapena hobetzeko irakaskuntza-tresnak eta -metodologiak ezagutu ditzaten.

k) Bere kideen eta Ikastegiko interes-taldeetako kideen trebakuntza sustatuko du, kalitate- eta ebaluazio-gaietan.

2.– La aprobación definitiva del Reglamento de la Comisión de Calidad del Centro corresponde al Consejo de Gobierno, a propuesta de la Junta del Centro, tras la emisión del preceptivo informe de legalidad. Por parte de la Secretaría General se procederá, por delegación, a la aprobación de los Reglamentos que cuenten con todos los informes favorables y respecto de los cuales no haya solicitud expresa de su elevación al Consejo de Gobierno por parte de algún miembro de éste o el 15% de los miembros de la Junta del propio Centro. De esta aprobación se informará al Consejo de Gobierno.

***Artículo 3.***– Funciones.

1.– La Comisión de Calidad tendrá las funciones que le sean asignadas en su Reglamento por la Junta de Centro, realizando, en todo caso, las siguientes:

a) Promueve el diseño, implantación, puesta en marcha y seguimiento del Sistema de Garantía Interna de Calidad (SGIC).

b) Realiza el seguimiento de los procesos a través de los indicadores asociados a los mismos.

c) Eleva las propuestas acordadas en el seno de la Comisión al Equipo de dirección o equipo decanal del Centro.

d) Recibe y, en su caso, coordina la formulación de los objetivos anuales del Centro y realiza el seguimiento de su ejecución.

e) Recibe los resultados de las encuestas de satisfacción y propone criterios para las propuestas de mejora que puedan derivarse de esos resultados.

f) Realiza un Informe Anual de seguimiento a partir del análisis y revisión del SGIC, proponiendo a su vez las acciones de mejora que se consideren necesarias para la obtención de los objetivos establecidos en el título.

g) Contribuye a la obtención y a la renovación periódica de la acreditación del título.

h) Sirve de vehículo de comunicación de la política y objetivos de calidad del Centro, garantizando su cumplimiento y su difusión entre la comunidad universitaria.

i) Contribuye a la planificación y despliegue del desarrollo curricular de la titulación.

j) Promueve la formación del profesorado del Centro en herramientas y metodologías docentes para la mejora del desarrollo curricular de los nuevos grados.

k) Promueve la formación de sus miembros y de los grupos de interés del Centro en materia de calidad y evaluación.

l) Ikastegiko Zuzendaritzari KBBSrekin lotutako alderdiei buruzko aholkularitza eskainiko dio.

m) Ikastegiko Batzarrari bere eskumeneko ebazpenak onartzeko proposamena egingo dio.

2.– Ikastegiko Batzarrak, Zuzendaritza Taldeak halaxe eskatuta, Kalitate Batzordearen esku utzi ahal izango ditu kalitatearen kudeaketarekin lotutako funtzioak; esate baterako, Ikastegien Esparru Arauaren 9.2.i) artikuluan xedatutakoa.

***4. artikulua.***– Osaera.

1.– Kalitate Batzordea gutxienez honako hauek osatu beharko dute:

a) Ikastegiko Zuzendaritza Taldeko edo Dekanotza Taldeko ordezkari batek edo batzuek.

b) IIren zenbait ordezkarik; Ikastegiko Zuzendaritza Taldeak aukeratutakoak, Ikastegian egoitza duten Sailek edo Ikastegian eratutako Sail Sekzioek halaxe proposatuta. Ahaleginak egingo dira irakasle eta ikertzaile horiek dekanotza edo zuzendaritza taldekoak izan ez daitezen.

c) Tituluaren koordinatzaileek (egonez gero).

d) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen ordezkari batek. Ordezkari horrek, ahal dela, kalitatearen arloko esperientzia izango du.

e) Ikasleen ordezkari batek (gutxienez), Ikastegiko Ikasle Kontseiluak halaxe proposatuta.

2.– Ikastegiko Kalitate Batzordearen Araudiak zehaztu beharko du Kalitate Batzordea osatuko duten talde bakoitzetik zenbat ordezkari diren beharrezkoak, eta ahaleginak egingo dira oreka egon dadin ordezkari gizonezko eta emakumezkoen artean.

3.– Ikastegiko dekanoak edo zuzendariak (edo eskuordetutako pertsonak) beteko du lehendakaritzalana. Ikastegiko Kalitate Batzordeak berak erabakiko du bere kideen artetik nork jardungo duen idazkarilanetan.

4.– Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu Kalitate Batzordeko kideak, Zuzendaritza Taldeak halaxe eskatuta. Izendapenak lau urteko iraupena izango du. Ikasleen kasuan, beren ordezkaritzak bi urteko iraupena izango du, eta iraupen hori luzatu ahalko da.

5.– Ikastegiko Kalitate Batzordearen irizpideei eta funtzionamenduari eutsiko zaiela bermatzeko, 2 urtean behin berrituko da Batzordearen erdia; hain zuzen, Ikastegiko Kalitate Batzordearen Araudiak bildutako moduan.

***5. artikulua.***– Laguntza Batzordeak.

1.– Kalitate Batzordearen Araudiak Laguntza Batzordeak egon daitezkeela jaso dezake. Hala izanez

l) Asesora a la Dirección del Centro sobre aspectos relacionados con el SGCI.

m) Propone a la Junta de Centro la aprobación de resoluciones en el ámbito de su competencia.

2.– La Junta del Centro, a propuesta del Equipo de dirección o equipo decanal, podrá delegar en la Comisión de Calidad funciones relacionadas con la gestión de la calidad que le son propias, como por ejemplo, la establecida en el artículo 9.2.i) del Reglamento Marco de los Centros.

***Artículo 4.***– Composición.

1.– La Comisión de Calidad estará integrada, al menos, por:

a) Uno o varios representantes o una o varias representantes del Equipo de Dirección o Equipo Decanal del Centro.

b) Varios o varias representantes del PDI, elegidos por el Equipo de dirección o equipo decanal del Centro a propuesta de los Departamentos con sede en el Centro o de las Secciones Departamentales constituidas en el Centro. En la medida de lo posible se procurará que este personal Docente e Investigador sea ajeno al Equipo Decanal o de Dirección.

c) Las y los coordinadores de titulación en caso de que los hubiere.

d) Una o un representante del Personal de Administración y Servicios, que preferentemente tenga responsabilidad en materia de calidad.

e) Al menos una o un representante del alumnado a propuesta del Consejo de Estudiantes del Centro.

2.– El Reglamento de la Comisión de Calidad del Centro deberá concretar el número de representantes de cada colectivo que integrará la Comisión de Calidad, y se procurará que haya una representación equilibrada de ambos sexos en la misma.

3.– La presidencia la ostentará el decano, decana, Director o Directora del Centro o persona en quien delegue. La propia Comisión de Calidad del Centro decidirá entre sus miembros quién actúa de Secretaria o Secretario de la misma.

4.– Las y los miembros de la Comisión de Calidad serán nombrados por la Junta de Centro a propuesta del Equipo de dirección o equipo decanal. El nombramiento se hará por un periodo de cuatro años. En el caso de la representación del alumnado será de dos años, siendo el mismo prorrogable.

5.– Con el fin de asegurar la continuidad de los criterios y funcionamiento de la Comisión de Calidad del Centro, su renovación se realizará por mitades cada 2 años en la forma que se recoja en el Reglamento de la Comisión de Calidad del Centro.

***Artículo 5.***– Comisiones de apoyo.

1.– El Reglamento de la Comisión de Calidad podrá prever la existencia de Comisiones de Apoyo. En

gero, Kalitate Batzordeak berak eratu ahal izango ditu. Laguntza Batzordeak Kalitate Batzordearen mendekoak izango dira, eta kontsulta-izaera izango dute. Kalitate Batzordeak erabakiko du Laguntza Batzorde bakoitzaren osaera nolakoa izango den, lehendakaria eta idazkaria nor izango diren, bakoitzaren jardun-eremua eta funtzioak zein izango diren, eta hala badagokio, baita bakoitzaren funtzionamendu-erregimenaren berezitasunak zein izango diren ere.

2.– Ikastegiak koordinatzen dituen tituluak adina batzorde eratu ahal izango dira, curriculum-garapenaz ardura daitezen. Batzorde horiek osatzean, unibertsitateko hainbat sektorek Kalitate Batzordean parte hartzeko dituzten irizpideak errespetatu beharko dira. Hala, ikasturte edo modulu bakoitzeko koordinatzaileek (horrelakorik egonez gero) izan beharko dute batzordeetako kideak.

3.– Era berean, batzorde bat eratu ahal izango da, irakasleen Irakaskuntza Ebaluatzeko Programaren (Docentiaz) informazio-iturri moduan. Batzorde horrek ere unibertsitateko hainbat sektorek Kalitate Batzordean parte hartzeko dituzten irizpideak errespetatu beharko ditu; nolanahi ere, derrigorrezkoa izango da Ikastegiari atxikitako Sailetako edo Sail Sekzioetako ordezkariak izatea.

***6. artikulua.***– Funtzionamendu-erregimena.

1.– Ikastegiko Kalitate Batzordearen Araudiak arautuko ditu honako hauek: Batzordeko kideen ezaugarriak, plaza hutsak betetzeko modua, kide anitzeko organoko kideen eskubide zein betebeharrak eta Batzordearen osaera. Beronek arautuko ditu, halaber, saioetarako deialdiak eta maiztasuna, deialdia gauzatzeko modua, saioaren garapena, bozketa, saioaren akta eta erabakiak argitaratzeko bideak. Berariazko funtzionamendu-erregimen bat izan ezean edo bertan aurreikusi gabeko kontuetan, Ikastegiko Batzarrerako xedatutako arauen arabera jardungo du Kalitate Batzordeak bere funtzionamenduan; betiere, baldin eta arau horiek aplikatzeko modukoak badira.

2.– Batzordearen erabakiak bileran bildutako pertsonen gehiengoz onartuko dira. Lehendakariak, bestalde, kalitate-botoa izango du. Batzordearen erabakiek ez dute izaera betearazlea izango. Ikastegiko Zuzendaritza Taldeari helaraziko zaizkio, hark beharrezko neurriak har ditzan.

3.– Idazkariak akta idatziko du, eta Kalitate Batzordeko kide guztiei bidaliko die. Akta, era berean, publiko egingo da, Ikastegiko kide unibertsitario guztiek eskuragarri izan dezaten.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Araudia onartzea proposatzeko epea.

tal caso, serán creadas por la propia Comisión, dependerán de la misma y tendrán carácter consultivo. Para cada una de ellas, la Comisión de Calidad determinará su composición, la presidencia y la secretaría, su ámbito de actuación y funciones, así como las peculiaridades, en su caso, de su régimen de funcionamiento.

2.– En particular, podrán crearse tantas comisiones responsables del desarrollo curricular como títulos coordine el Centro. La composición de estas comisiones deberá respetar los criterios de participación de los distintos sectores universitarios en la Comisión de Calidad, debiendo formar parte de las mismas las y los coordinadores de curso o de módulo, en el caso de que los hubiera.

3.– Así mismo, podrá crearse una comisión que se constituya en fuente de información del Programa de Evaluación de la Actividad Docente del profesorado, Docentiaz. Esta Comisión deberá respetar los criterios de participación de los distintos sectores universitarios en la Comisión de Calidad, siendo preceptiva en todo caso la existencia de representantes de los Departamentos o de las Secciones departamentales adscritas al Centro.

***Artículo 6.***– Régimen de Funcionamiento.

1.– El Reglamento de la Comisión de Calidad del Centro regulará la condición de miembro de la misma, cobertura de vacantes, derechos y deberes de las y los miembros del órgano colegiado y su constitución. Regulará también las clases de convocatorias y periodicidad de las sesiones, realización de la convocatoria, desarrollo de la sesión, votación, acta de la sesión y publicidad de los acuerdos. En defecto de un régimen de funcionamiento propio, así como en todo lo no previsto por el mismo, la Comisión de Calidad se regirá para su funcionamiento por las normas establecidas para las sesiones de la Junta de Centro, en la medida en que puedan aplicarse.

2.– Las decisiones de la Comisión serán tomadas por mayoría de las y los asistentes a la reunión. El Presidente o la Presidenta tendrán voto de calidad. Las decisiones de la Comisión no revestirán carácter ejecutivo. Serán remitidas al Equipo de dirección o equipo decanal del Centro para que se tomen las medidas pertinentes.

3.– El Secretario o la Secretaria levantará acta, que enviará a todas y todos los componentes de la Comisión de Calidad y se hará pública, de modo que esté disponible para toda la Comunidad Universitaria del Centro.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA.– Plazo para proponer la aprobación del Reglamento.

1.– UPV/EHUko irakaskuntza-ikastegiek gehienez ere 2 hilabeteko epea izango dute Ikastegiko Kalitate Batzordearen Araudiaren proposamena Gobernu Kontseiluari jakinarazteko, honako Esparru Araudi honi egokituta.

2.– Irailaren 1a azken eguna izango da ikastegiek beren proposamena Idazkaritza Nagusira igor dezaten. Epe hori bete ezean, Idazkaritza Nagusiak urriaren 15ean baino lehen izango du prest Esparru Araudiaren gutxieneko garapena, ezarritako epean beren arautegia onartu ez duten ikastegiei aplikagarri izan dakien.

1.– Los Centros docentes de la UPV/EHU dispondrán de un plazo máximo de 2 meses para elevar al Consejo de Gobierno su propuesta de Reglamento de la Comisión de Calidad del Centro adecuado a este Reglamento Marco.

2.– Se establece el 1 de septiembre como fecha límite para que los Centros envíen su propuesta a Secretaría General. En el caso de que no se cumpla este plazo Secretaría General elaborará, antes del 15 de octubre, el desarrollo mínimo del Reglamento Marco aplicable a los centros que en el plazo previsto no hayan aprobado su Reglamento.